

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

3/2026 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, apirilaren 21ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako zerga araudira egokitzeari Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Zerga Berezietan eta Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergan egindako zenbait aldaketa, eta araubide iragankor bat ezartzea ikus-entzunezko lanak eta zuzeneko ikuskizunak finantzatzearen arloan

Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuak, zeina Diputatuen Kongresuaren erabaki baten bidez baliozkotu baitzen (2026ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez argitaratu zen), zerga izaerako neurriak ezarri ditu zerga bereziei, balio erantsiaren gaineko zergari eta energia elektriakoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari eragiten dietenak.

Era berean, aldaketak egin ziren Balio Erantsiaren gaineko Zergan, maiatzaren 24ko 13/2023 Legearen bidez. Lege horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzen du, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioan, zeinak Fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari eta beste zerga arau batzuei buruzko 2011/16/EB Zuzentaria aldatzen baitu.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi baitzuen, 23 quater, 26. eta 33. artikuluetan ezartzen du balio erantsiaren gaineko zerga, energia elektriakoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga eta zerga bereziak itundu beharra, eta xedatzen du ezen, zenbait salbuespen izan ezik, lurralde historikoetako erakunde eskudunek Estatuak uanean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberak aplikatu behar dituztela.

Aurrekoaren arabera, xedapen honek Arabako Lurralde Historikoaren zerga ordenamenduan txertatzen ditu aipatutako maiatzaren 24ko 13/2023 Legeak balio erantsiaren gaineko zergan egindako aldaketa horiek, bere garaiari egokitu ez zirenak, bai eta martxoaren 20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan jasotako zerga neurriak ere, eta, horrela, aipatutako aldaketak txertatzen ditu, Ekonomia Itunaren 23 quater, 26 eta 33. artikuluetan ezarritakoa betez.

Bestalde, kultura ekoizpenen finantzaketan parte hartzeko araubidearen aldaketa 2025aren amaieran onetsi izanak, zergaldi horretako urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, zailtasunak sortu ditu hura 2025ean aplikatzeko, beste arau esparru batean egindako eragiketetan eragin baitu.

Segurtasun juridikoa bermatzeko eta araubidea modu koherentean aplikatzeko, eta kontuan hartuta aitorpenak aurkezteko epeak hurbil daudela, aparteko eta presazko premia dago presa fiskaleko dekretu arauemaile honetan sartzen den araubide iragankor bat onesteko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horretarako emandako arau eraginari buruzko txosten laburtua ikusi da.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

XEDATZEN DUT

I. TITULUA

**Ekialde Ertaineko Krisiari Erantzuteko Plan Integrala onesten duen martxoaren
20ko 7/2026 Errege Lege Dekretuan jasotako zerga neurriak egokitzea**

I. KAPITULUA

Zerga bereziak

1. artikulua. Hidrokarburoen gaineko zergaren zerga tasak

Bat. 2026ko martxoaren 22tik aurrerako ondorioekin eta 2026ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin, honako hauek izango dira Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fisikaleko Dekretu Arauemailearen 50. artikulua 1. apartatuko 1. tarifan araututako zerga tasak:

1.1. epigrafea. Berundun gasolinak: tasa orokorra, 433,79 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.2.1. epigrafea. Berunik gabeko gasolinak, 98. O. I edo oktanaje handiagokoak: tasa orokorra, 307,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 51,29 euro 1.000 litroko.

1.2.2. epigrafea. Berunik gabeko gainerako gasolinak: tasa orokorra, 304,32 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 54,68 euro 1.000 litroko.

1.3. epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: tasa orokorra, 267,31 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 62,69 euro 1.000 litroko.

1.4. epigrafea. 54. artikulua 2. paragrafoan ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko gasolioak: tasa orokorra, 17,09 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 3,91 euro 1.000 litroko.

1.5. epigrafea. Fuelolioak: tasa orokorra, 12,35 euro tonako, eta tasa berezia, 2,65 euro tonako.

1.6. epigrafea. Erabilera orokorreko PGLa: 57,47 euro tonako.

1.8. epigrafea, karburantzez besteko erabileretarako PGLa: 0 euro tonako.

1.9. epigrafea. Erabilera orokorrerako gas naturala: 1,15 euro giga jouleko.

1.10.1. epigrafea. Erregaitarako erabiltzen ez den gas naturala eta motor geldikorretako erregai gisa erabiltzeko gas naturala: 0,30 euro giga jouleko.

1.10.2. epigrafea. Helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturala, baldin eta energia elektrikoaren zuzeneko nahiz zeharkako generazio edo kogeneraziozko prozesuetan ez bada erabiltzen: 0,15 euro giga jouleko.

Epigrafe honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturalatzat hartzen dira industria lantegi eta instalazioetan kontsumitzeko egiten diren gas naturalaren hornikuntzak, salbu eta energia termiko baliagarria sortzeko erabiltzen dena, energia horren azkeneko aprobetxamendua industria lantegi edo instalazioen izaera ez duten establezimendu edo lokaletan egiten bada. Halaber, helburu profesionalekin erabiltzeko den gas naturalatzat joko da nekazaritza lanetan erabiltzen den gas naturala.

1.11. epigrafea. Erabilera orokorreko kerosenoa: tasa orokorra, 306 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 72 euro 1.000 litroko.

1.12. epigrafea. Karburantzez besteko erabileretarako kerosenoa: 0 euro 1.000 litroko.

1.13. epigrafea. Erregai gisa erabiltzen diren bioetanola eta biometanola:

a) 98. O. I edo oktanaje handiagoko berunik gabeko gasolinekin nahastutako bioetanola eta biometanola: tasa orokorra, 307,71 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 51,29 euro 1.000 litroko.

b) Bioetanola eta biometanola, berunik gabeko edo nahastu gabeko gainerako gasolinekin nahastuta: tasa orokorra, 304,32 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 54,68 euro 1.000 litroko.

1.14 epigrafea. Erregai gisa erabiltzeko biodieselak: tasa orokorra, 267,31 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 62,69 euro 1.000 litroko.

1.15 epigrafea: 54. artikuluan 2. apartatuan ezarritako erabileretan karburante gisa eta, orokorrean, erregai gisa erabiltzeko biodieselak, eta erregai gisa erabiltzeko biometanola: tasa orokorra, 17,09 euro 1.000 litroko, eta tasa berezia, 3,91 euro 1.000 litroko.

1.16 epigrafea (ezabatua).

1.17 epigrafea (ezabatua).

Bi. Apirilean erregaien KPlaren aldakuntzak aurreko urteko hilabete bereko KPIa ehuneko 15 baino gehiago gaitzen ez badu, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, artikuluan honen Bat apartatuan araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio ekainean.

2. artikulua. Erabilera profesionaleko gasolioaren itzulketa partziala

2026ko martxoaren 22tik aurrerako ondorioekin eta 2026ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen 52bis6. artikuluan araututako itzulketa tasa zero eurokoa izango da.

3. artikulua. Nekazaritzan eta abeltzaintzan erabilitako gasolioaren itzulketa partziala 2026. ekitaldian

2026. urtean, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen 52 ter artikuluan ezarritako itzulketak, 2026ko martxoaren 22tik 2026ko ekainaren 30era bitartean egindako gasolio erosketek dagokienez, Kontseiluaren 2003ko urriaren 27ko 2003/96/EE Zuzentarauan jasotako gutxieneko tributazioa errespetatu beharko du (2003/96/EE Zuzentaruak, 2003ko urriaren 27koa, energia produktuen eta elektrizitatearen gaineko Europar Batasuneko zergapetze araubidea berregituratzen duena).

4. artikulua. Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zerga tasa

Bat. 2026ko martxoaren 22tik aurrerako ondorioekin eta 2026ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin, elektrizitatearen gaineko zerga berezia ehuneko 0,5eko zerga tasan eskatuko da.

Zerga tasa horiek aplikatzearen ondoriozko kuotak ezin izango dira honako zenbateko hauek baino txikiagoak izan:

a) 0,5 euro megawatt orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea industria erabileretarako, portuetan atrakaturako aisialdirako ontzi pribatuak ez diren ontzietarako edo trenbideko garraiorako erabiltzen bada.

b) 1 euro megawatt orduko (MWh), hornitutako edo kontsumitutako elektrizitatea beste erabilera batzuetarako bada.

Aurreko letretan aurreikusitako baldintza betetzen ez denean, haietan adierazitako zenbatekoak zerga tasatzat hartuko dira, eta megawatt/ordutan (MWh) adierazitako aldiaren gutzizko hornidurari edo kontsumoari aplikatuko zaizkio.

Ondorio horietarako, honako hauek joko dira industria erabileratzat:

a) Goi tentsioan edo industria lantegi eta instalazioetara hornitzen dena.

b) Behe tentsioan hornitzen dena nekazaritzako ureztaketak egiteko.

Aurreko a) eta b) letretan jasotako gutxieneko zerga ez da aplikatuko Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen 101, artikuluko 1. apartatuaren a), b), c) eta d) letretan jasotako kasuetan.

Bi. Apirilean elektrizitatearen KPlaren aldakuntzak aurreko urteko hilabete bereko KPla ehuneko 15 baino gehiago gainditzen ez badu, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, artikuluko honen Bat apartatua araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio ekainean.

II. KAPITULUA

Balio erantsiaren gaineko zerga

5. artikulua. Energia produktuen Europar Batasunaren barruko entreegi, inportazioei eta erosketa jakin batzuei aplikatzekoa zaien balio erantsiaren gaineko zergaren zerga tasa

2026ko martxoaren 22tik aurrerako ondorioekin eta 2026ko ekainaren 30era arteko indarraldiarekin, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 10eko tasa aplikatuko zaie hauexen EB barruko entrega, inportazio eta eskuratzei:

a) Honako hauen alde egindako energia elektrikoaren entrega inportazio eta eskuratzei:

– Potentzia kontratatua (potentzia termino finkoa) 10 kW baino gutxiago duten elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, hornikuntzaren tentsio maila eta kontratazio modalitatea gorabehera.

– Elektrizitateko gizarte bonuaren onuradun izan eta kaltebera larritzat edo gizartetik baztertzeko arriskuan dagoen kaltebera larritzat aitortuta dauden elektrizitate hornikuntzako kontratuen titularrak, bat etorri urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan, zeinaren bidez arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren figura, gizarte bonua eta etxean energia elektrikoa kontsumitzen dutenak babesteko beste neurri batzuk, ezarritakoarekin.

Apirilean elektrizitatearen KPlaren aldakuntzak aurreko urteko hilabete bereko KPla ehuneko 15 baino gehiago gainditzen ez badu, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, letra araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio ekainean.

b) Gas naturalari, biomasatik datozen briketa eta “pelletei” eta egurretarako zurari.

Apirilean gasaren KPlaren aldakuntzak aurreko urteko hilabete bereko KPla ehuneko 15 baino gehiago gainditzen ez badu, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, letra araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio ekainean.

c) Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Presa Fiskaleko Dekretu Arauemailearen 50.1. artikuluko 1. tarifaren 1.2.1, 1.2.2, 1.3, 1.4, 1.5, 1.6, 1.8, 1.12, 1.13, 1.14 eta 1.15 epigrafeetan jasotako erregai gisa erabiltzeko gasolina, gasolio eta bioerregaiei.

Apirilean erregaien KPlaren aldakuntzak aurreko urteko hilabete bereko KPla ehuneko 15 baino gehiago gainditzen ez badu, Estatistikako Institutu Nazionalak maiatzean argitaratzen duen informazioaren arabera, letra araututako tasaren murrizketa aplikatzeari utziko zaio ekainean.

III. KAPITULUA

Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga

6. artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren 2026ko ekitaldiko zerga oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa ezartzea

1. 2026ko ekitaldian hau izango da energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga oinarria: instalazio bakoitzean zergaldian ekoitzi eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoagatik (zentral barretan neurtuta) zergadunak jaso beharreko guztirako zenbatekoa ken sisteman lehen hiru hileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien ehuneko 10a, ken sisteman bigarren hiru hileko naturalean sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsari guztiak.

2. Lehenengo hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen lehen hiru hilabeteak amaitu arte) ken hiruhileko natural horretan sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien zenbatekoaren ehuneko 10 izango da kontuan, eta Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio.

Bigarren hiruhilekoko ordainketa zatikatuaren zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen lehen sei hilabeteak amaitu arte) izango da kontuan; kopuru horretatik, lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien ehuneko 10 kenduko da eta bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsari guztiak ere bai, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik 2026ko ekitaldiaren kontura egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

Hirugarren eta laugarren hiruhilekoetako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kalkulatzeko, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioa (zentral barretan neurtuta eta sistema elektrikoan txertatuta zergaldi hasieratik urtearen bederatziti edo hamabi hilabeteak amaitu arte, hurrenez hurren) izango da kontuan; kopuru horretatik, lehen hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsarien ehuneko 10 kenduko da eta bigarren hiruhileko naturalean sisteman sartutako elektrizitateari dagozkion ordainsari guztiak ere bai, Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren uztailaren 9ko 24/2014 Foru Arauak 8. artikuluan ezartzen duen zerga tasa aplikatuko zaio eta gero aurretik 2026ko ekitaldiaren kontura egindako ordainketa zatikatuen zenbatekoa kenduko da.

II. TITULUA

Maiatzaren 24ko 13/2023 Legean jasotako zerga neurriak egokitzea. Lege horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorra aldatzen du, Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren transposizioan, zeinak Fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari eta beste zerga arau batzuei buruzko 2011/16/EB Zuzentaraia aldatzen baitu

7. artikulua. Aldatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua

Lehenengoa. Hainbat aldaketa egiten dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. 18. artikuluan hiru apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“Hiru. Inportatutako merkantziak aduanaz bestelako gordailu araubideari lotzeko, arau honetako 65. artikuluan aipatutakoak baino ez dira hartuko kontuan.

Lehenago inportatutako eta araubide horretara lotutako ondasunen aduana araubideaz bestelako gordailu araubidea amaitzen bada, eta haien inportazioari arau honetako 65. artikuluan jasoriko salbuespena aplikatu bazaio, ondasunen inportazioaren zerga egitea zehaztuko da, salbu eta arau honen eranskinaren bosgarren apartatuaren a) letran aipatzen diren zerga berezien xede diren ondasunena; kasu horretan, aduanaz bestelako gordailu araubidea azkentzeak inportazio batekin parekatutako eragiketa bat egitea ekarriko du.

Hala ere, aldez aurretik inportatutako ondasunen aduanaz bestelako gordailu araubidea amaitzea ez da inportazioa edo inportazioarekin parekatutako eragiketa izango, baldin eta hark ondasun emate bat zehazten badu eta arau honen 21., 22. edo 25. artikuluetan ezarritako salbuespenak aplikatu behar bazaizkio.”

Bi. 83. artikuluko bigarren apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“Bi. Arau bereziak.

1. Konpontzeko, eraldatzeko, egokitzeko edo enkarguzko lanak egiteko Europar Batasunetik kanpora aldi baterako esportatutako ondasunak berriz inportatzearen zerga oinarria lan horien kontraprestazioa izango da, zeina titulu honen lehenengo kapituluan jasotako arauen arabera zehaztu baita.

Aurreko apartatuko a) eta b) letretan aipatzen diren kontzeptuak ere zerga oinarrian sartuko dira, aurreko paragrafoan zehaztutako kontraprestazioan sartuta ez daudenean.

2. 19. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakietan aipatutako inportazioen zerga oinarriak barnean hartuko du inportazio horien aurretik kasuan kasuko garraio bideei buruz egindako eragiketa guztien kontraprestazioaren zenbatekoa, baldin eta eragiketa horiek zergaren salbuespenaren onura izan badute.

3. Arau honetako 18. artikuluko Bi eta Hiru apartatuetan aipatzen diren inportazioetan, arau honetako 23. artikuluan edo 24. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik zergatik salbuetsita geratu diren emateetan edo zerbitzu prestazioetan jaso badira ondasunak, salbuetsita geratu diren zerbitzuei dagokien kontraprestazioari honako hauek gehitzearen emaitza izango da zerga oinarria:

i. Aurreko Bat apartatua aplikatetik ateratako balioa edo, hala badagokio,

ii. Aduana edo zerga araubide horiek indarrean dauden bitartean edo ondasunak manu horretan araututako egoeretan dauden bitartean egindako azken entregaren kontraprestazioa.

4. Honako hau izango da aduanaz bestelako gordailu araubidea bertan behera uzten duten ondasunen zerga oinarria, zerga egitateak ez badu inportazioa zehazten arau honetako 18. artikuluko Hiru apartatuan xedatutakoaren arabera, baizik eta inportazio batekin parekatutako eragiketa:

a) Beste estatu kide batetik edo hirugarren herrialdeetatik datozen ondasunen kasuan, 82. artikuluko edo artikuluko honetako Bat apartatuko arauak, edo, hala badagokio, gordailu horretan egindako azken emateari dagokiona, hurrenez hurren, aplikatetik ateratzen dena.

b) Herrialdearen barrutik datozen ondasunen kasuan, ondasun horien azken emateari dagokiona, zerga ordaintzetik salbuetsita.

c) Aurreko letretan jasotako ondasunak sartzeko edo eraldatzeko prozesuen ondoriozko ondasunen kasuan, letra horietan jasotako arauak aplikatzearen ondoriozko zerga oinarrien batura.

d) Kasu guztietan, Europar Batasunaren barruan edo, hala badagokio, ondasunen azken ematean inportatu edo eskuratu ondoren emandako eta Zergatik salbuetsitako zerbitzuei dagokien kontraprestazioen zenbatekoa jaso beharko du.

e) Aduanaz bestelako gordailu araubidea bertan behera uzten den kasu guztietan, araubide hori bertan behera uzteagatik eska daitekeen zerga berezia zerga oinarrian sartuko da, hala badagokio.

5. Arau honen 19. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren gainerako eragiketen zerga oinarria hau izango da: Europar Batasunaren barruko azken ondasun ematearen edo eskuratzearen kontraprestazioen eta entrega edo eskuratze horren ondoren emandako zerbitzuen batura, haiek guztiak Zergatik salbuetsita, titulu honen I. eta II. kapituluetan xedatutakoaren arabera.

6. Produktu informatiko normalizatuen inportazioetan, zerga oinarria izango da haiei erantsitako euskarriari eta programa edo informazioei dagokiena.”

Bigarrena. Hainbat aldaketa egiten dira Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan, eta 2023ko maiatzaren 26tik aurrera izango dituzte ondorioak:

Bat. 70. artikuluko bigarren apartatua aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“Bi. Era berean, ondoren adieraziko diren zerbitzuak zergaren aplikazio lurraldean emantzat joko dira, baldin eta, zerbitzu horiei aplikatu dakizkiekeen egiteko tokiari buruzko arauak jarraituta, ulertzen bada ez direla eman Europar Batasunean, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan, baina horien erabilera edo ustiapena lurralde horretan gertatu bada:

1. Arau honen 69. artikuluko Bi apartatua aipatutakoak, haien hartzailea enpresaburu edo profesional gisa jarduten duen enpresaburu edo profesionala ez bada.

2. Garraio bideen errentamendukoak.”

Bi. 163 quinvicies aldatzen da eta honela idatzita geratzen da:

“163 quinvicies artikulua. Aplikazio eremua.

Bat. Atal honetan arautzen den araubide bereziari heldu diezaiokete hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatutako ondasunak, balio intrinsekoa 150 eurotik gorakoa ez dutenak, zerga berezien kargapean daudenak ez bestek, urrunetik saltzen dituzten enpresaburuak eta profesionalak, baldin eta:

– Europar Batasunean, Kanarrietan, Ceutan edo Melillan kokatutako enpresaburuak edo profesionalak;

– egoitza Europar Batasunean eduki zein ez eduki, egoitza Europar Batasunean daukan bitartekari baten bidez badihardute. Ondorio horietarako, ezin da eduki bitartekari bat baino gehiago aldi berean; edo

– egoitza hirugarren herrialde batean badute, Europar Batasunak herrialde horrekin sinatutako elkarri laguntzeko akordioaren aplikazio esparrua Kontseiluaren 2010/24/UE Zuzentarauaren eta 904/2010 (EB) Erregelamenduaren aplikazio esparruaren antzekoa bada eta herrialde horretako ondasunak urrunetik saltzen badituzte.

Araubide berezi hau enpresaburuak eta profesionalak hirugarren herrialde edo lurraldeetatik inportatzen dituzten ondasunen urruneko salmenta guztiei aplikatuko zaie.

Bi. Atal honetan xedatzen dena betetzeko honako definizio hauek hartu behar dira kontuan:

a) “Europar Batasunean kokatuta ez dagoen enpresaburu edo profesionala”: jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasunetik kanpo daukan enpresaburu edo profesionala, Europar Batasunaren barruan establezimendu iraunkorrik ez daukana.

b) “Bitartekaria”: egoitza Europar Batasunean daukan pertsona, hirugarren herrialde edo lurralde batetik inportatutako ondasunak urrunetik saltzen dituen enpresaburu edo profesional batek izendatzen duena beraren izenean eta beraren kontura bete ditzan araubide berezi honek dakartzen betebeharrak eta formalak eta horren ondoriozko erlazio juridiko-tributarioen titularra dena.

Araubide berezi honetan bitartekari aritzeko baldintzak eta betekizunak erregelamendu bidez ezarriko dira.

c) “Europar Batasuneko identifikazio estatua”:

a’) Enpresaburuaren edo profesionalaren egoitza ez badago Europar Batasunean, hautatzen duen Europar Batasuneko estatua.

Jarduera ekonomikoaren egoitza Kanarrietan, Ceutan edo Melillan duten enpresaburu edo profesionalen kasuan, Europar Batasuneko identifikazio estatu kidea Espainiako Erresuma izango da, baldin eta Europar Batasunean kokatutako bitartekari bat izendatu ez badute.

b') Enpresaburuaren edo profesionalaren egoitza ez badago Europar Batasunean baina bertan badauzka zenbait establezimendu iraunkor, establezimendu iraunkorra daukan estatuetatik zerga berezi honi heltzeko hautatzen duena. Europar Batasuneko estatuaren hautapena indarrean egongo da enpresaburuak edo profesionalak ezeztatu arte eta gutxienez hiru urte iraungo du: hautapena egiten den egutegiko urtea eta hurrengo biak.

c') Enpresaburuaren edo profesionalaren jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko estatu batean badago edo hark daukan establezimendu iraunkor guztiak Europar Batasuneko estatu berean badaude, estatu hori.

d') Bitartekariaren jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko estatu batean badago, estatu hori.

e') Bitartekariaren egoitza ez badago Europar Batasunean baina bertan badauzka zenbait establezimendu iraunkor, establezimendu iraunkorra daukan estatuetatik zerga berezi honi heltzeko hautatzen duena. Europar Batasuneko estatuaren hautapena indarrean egongo da enpresaburuak edo profesionalak ezeztatu arte eta gutxienez hiru urte iraungo du: hautapena egiten den egutegiko urtea eta hurrengo biak.

d) "Europar Batasuneko kontsumoko estatua": bezeroarentzako ondasunaren bidalketa edo garraio heltzen den Europar Batasuneko estatua.

Hiru. Atal honetan xedatzen dena betetzeko, "Europar Batasuneko identifikazio estatua" Espainiako Erresuma izango da kasu hauetan:

a) Jarduera ekonomikoaren egoitza zergaren aplikazio lurraldean daukaten enpresaburu edo profesionalen edo bitartekarien kasuan eta, jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko lurraldean ez badaukate ere, zergaren aplikazio lurraldean establezimendu iraunkorren bat daukatenean.

b) Enpresaburuaren edo profesionalaren edo bitartekariaren jarduera ekonomikoaren egoitza Europar Batasuneko lurraldean ez badago eta, zergaren aplikazio lurraldean eta Europar Batasuneko beste estatu batean establezimendu iraunkor bat baino edukita, Espainia hautatzen badu identifikazio estatua izateko.

c) Enpresaburuaren edo profesionalaren jardueraren egoitza Europar Batasunean ez badago eta ez badauka bertan establezimendu iraunkorrik eta, horrez gainera, Espainia hautatu badu araubide berezi hau aplikatzeko, eta, nolana ere, bere jarduera ekonomikoaren egoitza Kanarrietan, Ceutan edo Melillan duten enpresaburuak edo profesionalak, Europar Batasunean kokatutako bitartekari bat izendatu ez badute."

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. 2025ean hasitako ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan eta liburuen edizioan parte hartzearen araubide iragankorra.

Ikus-entzunezko lanen, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunei eta liburuen edizioari dagokienez, ekoizpen fasearen hasiera, lehen emanaldia edo maketazio fasearen hasiera 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldian gertatzen bada, edo aldi horretan abian badago, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 66 quater artikulua 3. apartatuaren bigarren paragrafoaren bigarren tartekian adierazitakoa aplikatuko da, baita ekoizpen fasearen hasiera, lehen emanaldia edo maketazio fasearen hasiera zergaldiaren lehen sei hilekoan gertatzen denean ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta bertan jasotzen diren ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Presak fiskaleko dekretu arauemaile hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA